



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2011ko EKAINA

ENPRESAREN EKONOMIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JUNIO 2011

ECONOMÍA DE LA EMPRESA

Azterketa honek bi aukera ditu. Horietako bati erantzun behar diozu.

Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.

A AUKERA

A1. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2,5 puntu.

Irakur ezazu ondoko testua eta erantzuna eman galderei

CERAWORLD DA, AXULEIUEK SEKTOREAN, HARTZEKODUNEN LEHIAKETATIK IRTETEA LORTZEN DUEN LEHENENGO ENPRESA.

Ceraworld Cerámicas SA enpresa, hornitzaileei eta banku hartzekodunei esker, **hartzekodunen lehiaketa** egoeratik irten egin da, hartzekodunek konfiantza izan dutelako konpainiak aurkeztutako **Bideragarritasun-planeari**. Eta bere sektorean hori lortu duen lehengoa izan da.

Bancaja, Banco Pastor, Caixa Catalunya, Caixa Galicia, Caixa Penedés, Banesto, Fortis, Sa Nostra eta Bancantabria bankuek apustu egin dute Ceraworld Cerámicasen etorkizun-planaren alde. Enpresak hiru zutabetan oinarritzen du bere hazkundea: **fabrikazio-kostuen lehiakortasuna**, konpainiaren nazioarteratzea eta bere estrategia komertzialaren ikuspegi berri bat.

Ceraworld Cerámicasen lehiatzeko estrategiak fabrikazio-ahalmena optimizatzea jasotzen du: 2008an zabalduzako azken belaunaldiko instalazioa martxan jarrita, **produktibitate-tasa** handi bat lortzen da. Horrek, formatu desberdinetan ekoizteko malgutasunarekin lotuta, aukera ematen dio Ceraworld Cerámicasi produktu-katalogo zabal bat eskaintzeko bere bezeroei, eta hori oso kostu lehiakorrekin, goren mailako kalitateari uko egin gabe.

Etorkizuneko beste apusturik garrantzitsuenetariko bat konpainiaren negozioaren **nazioarteratzea** da. Ceraworld Cerámicas merkataritza-jardueraren garapena sustatu nahi du, eta bere negozioa sendotu orain diharduen 78 herrialdeetan. Haien artean dago Espainia, oso merkatu garrantzitsu eta estrategikoa enpresarentzat.

Gainera, merkataritza-eredu berri bat diseinatu da, **markaren irudia** indarberritzeko eta **banaketa-kanalari** eta zuzeneko salmentako bezeroei laguntza handiagoa emateko. Estrategia horrek merkatu eta bezero berrien merkataritza-garapena bultzatuko du, Espainian zein kanpoaldean.

Galdekisunak:

- a) Azaldu eta adierazi testuan agertzen diren hitzen esanahia.
- b) Azal ezazu testuaren ideia nagusia.

A2. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2 puntu.

Enpresa batek ekoizpen-instalazioa berrantolatu nahi du. Gaur egun arte, 112 langileetatik 50ek A produktuko 750 unitate fabrikatzen dute, urtean 200 egun lan eginez; gainerako langileek B produktuaren fabrikazioan dihardute: hilean 25 egun lan eginez, 186 unitate produzitzen dituzte



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2011ko EKAINA

ENPRESAREN EKONOMIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JUNIO 2011

ECONOMÍA DE LA EMPRESA

Berrantolaketaren ondoren, langileen erdiek B produktua fabrikatuko lukete, hilean 27 egun lan eginez. Eta A produktua ekoizten dutenek urtean 195 lanegun izango lukete. Horrela, ekoizpena, bai A-rena bai B-rena, % 5 handitzea lortuko litzateke.

Urtean 11 hilabete lan egiten badute eta 8 orduko jardunak badituzte, komeni da ekoizpen-lantaldea berrantolatzea? Zergatik?

A3. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2,5 puntu.

Berreskuratze-epea, edo pay-back, kontuan izanik, taulan zehazten diren bi inbertsioen artean zein aukeratuko zenuke aurrera eramateko? Azaldu emaitza.

		KUTXA FLUXUAK		
Inbertsioak	Hasierako ordainketa	1. urtea	2. urtea	3. urtea
A	3.000€	300€	2.700€	150€
B	3.000€	600€	1.500€	15.000€

Zein da bi aukera horietatik interesgarriena BEN irizpidea erabiliz, kontuan izanik egitasmoarekin jarraitzeko, inflaziorik gabe %3ko errentagarritasuna finkatu dela eta inflazio-tasa metatua %2 dela. Zergatik?

A4. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2 puntu

Enpresa batek, iaz, eskudirutan 100.000 €-ko erosketak egin zituen, eta batez beste 10.000 €-ko saldoa mantendu zuen. Urte horretan egindako fabrikazioaren kostu osoa 300.000 € izan zen, eta fabrikazio bidean zeuden produktuen stockaren batezbestekoa 15.000 € izan zen.

Urte horretan fabrikaturiko ekoizpen osoa saldu egin zen, eta 10.000 €-ko izakinak izan zituen, batez beste, urte osoan. Salmentagatiko diru-sarrerak, guztira, 500.000 € izan ziren, eta bezeroen saldoa 125.000 € izan zen..

Datu horiekin, kalkula ezazu:

- Enpresaren batez besteko heldze-aro ekonomikoa.
- Azaldu ezazu zer gertatuko den enpresan, bezeroei kobratzeko epeari buruzko politikan helburu gisa planteatzen bada 60 egunera kobratzea.

A5. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 1 puntu

Azal itzazu ondorengo ratio finantzarioak:

- Likidezia
- Ibilgetua
- Finantza-autonomia



B AUKERA

B1. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2 puntu.

XIRIMIRI S.L. enpresak euritakoak fabrikatzen ditu. Euritakoen heldulekuak ere enpresan bertan fabrikatzen dituzte. 10.000 helduleku ekoizteko 21.000 €-ko kostu finkoak eta 15.000 €-ko kostu aldakorrek ditu. Aurten, heldulekuen merkatuko prezioak behera egin du, eta 2 € da orain. Salmenten aurreikuspena 40.000 euritakokoa bada:

- Enpresa honi zer komeni zaio, heldulekuak fabrikatzen jarraitzea ala merkatuan erostea? Arrazoitu erantzuna.
- Salmenten aurreikuspenak kontuan hartuz, zenbatekoak izan beharko lukete kostu finkoek, enpresarentzat heldulekuak fabrikatzea edo erostea berdin izateko?.
- Egin egoeren irudikapen grafikoak.

B2. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2 puntu.

Argitaletxe batek 30.200 aldizkari saldu ditu hilabete honetan. Haien ekoizteko, 39.260 €-ko kostu aldakorrek izan ditu; gainera, 18.000 €-ko kostu finkoak ere izan ditu. Unitateko salmenta-preziora 2,8 € da.

Aurrekoa kontuan hartuta, kalkulatu:

- Produktuaren errentagarritasun-ataria.
- Adierazi grafikoki.
- Azaldu esanahia.
- Zein da emaitza, 25.000 aldizkari salduz gero?
- Enpresaren ekoizpenaren gehienezko muga 14.000 aldizkari izango balitz, zer salmenta-prezio jarri beharko luke galerarik ez izateko?

B3. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 4 puntu.

UNIBASO S.A. enpresak ekitaldi honen bukaeran ondare hau du:

- Makineria.....30.000€
- Altzari batzuk..... 115.000€
- Enpresaren aldeko saldoa bankuan duen kontu korrontean 10.000€
- 4 urte barru itzultzeko mailegua 150.000€
- Informatika-ekipoak9.000€
- Banaketarako furgoneta 125.000€
- Epe luzean ordaintzeko ibilgetu-hornitzaileak 16.000€
- Hainbat faktura kobratzeko25.000€
- Ordaindu gabe dituen fakturak28.000€
- Biltegian dituen salgaiak.....50.000€
- Gizarte Segurantzari zor zaiona4.000€
- Bezeroek onartutako truke-letrak38.000€
- Eskudirua kutxan.....7.000€
- Hornitzaileei onartutako letrak21.000€
- BEZaren likidazioagatik Ogasunari zor diona.....5.000€



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2011ko EKAINA

ENPRESAREN EKONOMIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

JUNIO 2011

ECONOMÍA DE LA EMPRESA

- Legezko erreserba20.000€
- Kapital soziala¿???????

Hau eskatzen da:

- a) Enpresaren balantzea ondare-masetan sailkatuta aurkeztea.
- b) Errotazio-fondoa edo maniobra-fondoa kalkulatzeko eta emaitza aztertzea.
- c) Enpresaren finantza-egoera aztertzea ratio hauek erabiliz:
 - Ibilgetua
 - Zorpetze osoa
 - Diruzaintza edo altxortegia
 - Likidezia
 - Bermea
 - Finantza-autonomia

B4. GALDERA: Gehienezko puntuazioa: 2 puntu.

Irakurri artikulua eta erantzun galderari.

Automobilgintza-sektorearen krisiaren ondorioz, Michelin gorpil-ekoizle frantsesak, iaz, 104 milioi euroko **mozkinak** baino ez zituen lortu. Hau da, 2008. urtearekin alderatuta, mozkinak % 70,9 jaitsi dira. Era berean, **fakturazioa** % 9,8 jaitsi da 14.800 milioi euroraino. Emaitzen berri izan ondoren, Parisko **Burtsan** Michelinen **akzioen** balioak % 3,7 galdu du, 50,06 euroraino.

- Azaldu azpimarratutako hitzen esanahia.
- Zein sektoretakoa da automobilgintza?. Azaldu sektore horren ezaugarri garrantzitsuenak.